

OHIKO BATZAR OROKORRAREN DEIALDIA

“MUTUALIA” Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko mutuaren Zuzendaritza Batzordeak, 2025eko martxoaren 28ko eta maiatzaren 30eko bileretan erabakitakoaren arabera, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 86. artikulua, 1993/1995 Errege Dekretuaren 36.4 artikulua (abenduaren 7koa, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen elkarlanari buruzko Erregelamendua onesten duena) eta Erakundearen Estatutuen 22. eta 23. d) artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, enpresa elkartuei **OHIKO batzar OROKORRERAKO DEIALDIA egitea erabaki du. Batzarra 2025eko uztailaren 18an (ostirala) egingo da, 11:30ean, lehen deialdian, eta 12:00etan, bigarren deialdian, GASTEIZEN (EHoko areto nagusia, Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 10 BIS), honako honi jarraituz:**

GAI-ZERRENDAA

1. Presidentearen hasierako agurra eta hitz-hartzea
2. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa aztertu eta, hala badagokio, onartzea honako hauek barne hartuz: Gobernu Korporatiboaren urteko txostena, aldi baterako finantza-inbertsioei buruzko txostena, balantzeak, emaitza-kontuak, memoria, diru-fluxuen eta ondare garbiaren aldaketaren egoera-erria eta aurrekontu-likidazioaren egoera-erria. Gizarte Segurantzaren eta ondare historikoaren kudeaketa 2024ko ekitaldiari dagokio, Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetza Nagusiak emandako auditoretza-txostenak ezagutu ondoren.
3. 2026ko ekitaldirako aurrekontuaren aurreproiektuari buruzko informazioa ematea eta, hala badagokio, onestea, eta Zuzendaritza Batzordeari eskumenak eskuordetzea Gizarte Segurantzaren Aurrekontuaren Proiektuan integratzeko behar diren aldaketak egin ditzan.
4. 2024ko ekitaldiko Prestazio Berezien Batzordearen kudeaketari buruzko txostena.
5. Zuzendaritza Batzordearen Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Barne Erregelamenduaren 2. berrikuspena aztertu eta, hala badagokio, onartzea.
6. Bi kontu-hartzaile izendatzea, bileraren akta berretsi eta onesteko.
7. Galderak eta eskaerak
8. Presidentearen azken hitz-hartzea

Hau jakinarazten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean, Mutuen Lankidetzaren Erregelamenduan, Entitatearen estatutuetan eta Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren 2000ko maiatzaren 10eko Ebazpenean xedatutakoaren arabera:

- Batzar orokorrera JOATEKO ESKUBIDEA: Batzar orokorra egiten den unean indarrean dagoen elkartzeko dokumentua duten ENPRESA ELKARTU guztiek, ERAKUNDEKO LANGILEEN ORDEZKARIAK eta ATXIKITAKO LANGILE AUTONOMOEN ORDEZKARIAK dute. Gizarte Segurantzako Ministerioak ere ordezkari bat izenda dezake batzarrean.
- Enpresa elkartuen ORDEZKARITZA beste enpresa elkartu bati ESKUORDETZAZ eman ahal izango zaio, eta idatziz formalizatuko da BERTARATZEKO ETA/EDO BOTOA ESKUORDETZEKO TXARTELEAN. Enpresa elkartuak txartel hori sinatuko du ordezkariaren edo ahalmen nahikoa duen ahalduaren bidez, eta dagokion deialdia eta boto-eskubidea erabiltzeko jarraibideak zehaztuko dira.
- Batzar orokorrean BOZKATZEKO ESKUBIDEA: Betebehar sozialak EGUNEAN dituzten bertaratutako ENPRESA ELKARTUEK edo ordezkatuak dute. Enpresa bakoitzak BOTO BAT BAKARRIK emateko eskubidea izango du, edozein direla ere esleitura dauzkan kotizazio-kontuaren kodeak, Erakundearen kudeaketa-eremuan babestuta dauden langileen kopurua edo beste edozein inguruabar. ERAKUNDEKO LANGILEEN ORDEZKARIAK ere boto baterako eskubidea izango du. Mutuari ATXIKITAKO LANGILE AUTONOMOEN ORDEZKARIAK boto baterako eskubidea izango du, baldin eta gizarte-kotizazioak ordainduta baditu.

- Parte-hartzea baieztatzeko eta botoa emateko eskubidea egiaztatzeko, BERTARATZEKO ETA/EDO BOTOA ESKUORDETZEKO TXARTELA bete eta sinatu behar da. Mutualiaren edozein zentrotan edo web-orrian (www.mutualia.eus) lor daiteke txartel hori. Hala ere, batzarrera joateko eta botoa emateko eskubidea batzar orokorra egiten den egun berean ere egiaztatu ahal izango da, indarrean dagoen elkartze-dokumentua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria erakutsiz, bertaratutako pertsona fisikoaren ordezkartzarekin batera.
- Batzar Orokorrerako eskura dagoen dokumentazioa: Aldi baterako finantza-inbertsioen txostena, memoria, balantzeak, emaitza-kontuak, Gobernu Korporatiboaren urteko txostena eta Gizarte Segurantzako Kontu-hartzailetza Nagusiak emandako auditoretza-txostenak Mutuaren webgunean kontsultatu ahal izango dira (www.mutualia.eus), batzar orokorraren aurreko 15 egunen barruan, baldin eta azken horiek Mutualiari jakinarazi bazaizkio, eta betiere jakinarazpenaren egunetik hasita.

Edozein zalantza edo kontsultatarako: Tel.: 944252503 edo presidencia@mutualia.eus

Bilbon, 2025eko maiatzaren 30ean

Mutualia, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko mutuako Zuzendaritza Batzordeko
presidentea